

## **BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA**

TOLOSAKO INMAKULADA LANBIDE IKASTOLAK, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra integratzen duten estrategiak oinarritzko eta zeharkako printzipio gisa ezartzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen du, genero-ikuspegia Ikastolako kudeaketa-eremu guztietan txertatuz, hezkuntza-jarduera eta zerbitzu guztietan, nahiz barneko zein kanpokoetan. Ikastolak oinarritzat du berdintasunaren aldeko apustua balio erantsi gisa gure erakundearentzat eta gizarte osoaren garapen iraunkorarentzat ere.

1. Ikastolan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea, enplegua lortzeari, prestakuntzari, sustapenari, soldata eta lan-baldintzei, lan-arriskuen prebentzioari eta ondasunak, zerbitzuak eta hornidurak eskuratzeari.
2. Plantilla osatzen duten pertsonen lana, bitzita pertsonala eta familia-bitzita bateratzen laguntzea, erantzunkidetasuna sustatuz.
3. Genero ikuspegia txertatzea hezkuntza zerbitzuetan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eta ikasleekiko tratuan.
4. 0 indarkeria ikasgeletan eta gizartean: Hezkuntza-komunitatean genero indarkeriaren arazoan sensibiltzatuz eta kontzientziatuz, eta hezkuntza eremuan prebentzio-neurriak hartuz, indarkeria ikusarazi eta desagerrarazten laguntzeko.
5. Gure hezkuntza-komunitatean sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzea.
6. Aniztasuna sartu eta integratzea. Sexu-aniztasuna onartzeko hezkuntza eta pertsona guztiak hezkuntza-komunitatean eta gizartean erabat integratzea, haien aukera afektibo edo sexualak eraginik izan gabe.
7. Berdintasun planaren jardueretan eta garapenean parte har dezaten erakunde langile guztiak sensibiltzatu eta prestatzea.
8. Hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan erabiltzea, gure barneko zein kanpoko komunikazioetan.
9. Beste erakunde batzuk eta herritarrak sensibiltzatzeko balio duten berdintasunezko balioak sustatzea eta zabaltzea, bai eta ildo horretan gizarte-aldaketak sortzen lagunduko duten jarduerak abiaraztea ere.

Aipatutako printzipioak berdintasun-planak ezarri gaiztatuko dira.

Zuzendaritzak bere gain hartzen du konpromiso hori, eta gure berdintasun-plana garatu, ezarri, berrikusi eta etengabe hobetzeko behar diren baliabideak esleitzen dizkio.

Otsaila 2021



Inmakulada  
TOLOSAKO LANBIDE IKASTOLA  
Kalea 5b • 943 67 36 29

Zuzendaria